

Salbatu planeta, gu salbatzeko



JUAN MARI ARREGI

Planeta haserre dago, gure sistema ekonomikoarekin hiltzen ari baika-ra, gure produzitzeko moduarekin, baita elikadura, energia mota eta garraiatzeko manerekin ere, bizi garen ingurua akitzen ari gara. Klima larrialdi egoeran gaude, baina badirudi ez dakigula. Gizarte-karbonoan bizi gara. Gobernuak eta erakundeek bat egin behar lukete ezagutzen dugun Lurra salbatzeko.

Agian egongo da ez dakienik nola borrokatu Lurraren alde. Bada, Aldaketa Klimatikoaren aurkako 2015eko Pariseko Akordioaren sortzaileak, Costa Ricako Christiana Figueresek, hainbat galdera iradoki ditu.

“Zer jaten dugu?”. Behi haragiaren eta deforestazioaren arteko lotura bistakoa da, baina haragi gorria jaten segitzen dugu egunero. Zer ari gara egiten? Ezin dugu basoak suntsiarazten dituzten produktuk kontsumitzen jarraitu etengabe.

“Nola mugitzen gara eta nola bizi?”. Gure etxe eta bulegoak, nahikoa isolaturik al daude ahalik eta energia gutxiena gastatzeko? Aurrezki batzuk dituztenek, gutxi izanik ere, jakin behar dute diru hori erregai fosilak erabiltzen dituzten konpainietan jarritz gero Lurra izorrazten ari direla –eta seguruenik diru hori ere galdu egingo dutela–.

Bestalde, herrialde “demokratikoe-tan” bizi garenok, boto emateak exijitzen duen konpromisoa aintzat hartu beharko genuke eta gaineen dugun larrialdiaz kontziente diren liderrak soilik babestu.

Gobernu eta erakundeek erantzukizunetik harago, pertsona bakoitzak bere etxean, lanean zein kalean, elikadura eta kontsumoaren bidez, baita erabiltzen dugun garraioa eta energia aukeratuz ere, ekarpena egin diezaioke borroka honi. Izan ere, Planeta salbatzen badugu, gu salbatuko gara. Etorkizuna kolokan duten gazteek ez lukete itxaron behar ekitzara pasatzeko. ●



NATHALIE LEES / THE GUARDIAN

Ez da iraila gorroto duguna

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Gehiago edo gutxiago itotzen duten –baina itotzen duten– geure errutinetara berriz egokitzeko ahaleginetan buru-belarri, heldu gara iraila amaierara. Konturatzeke batzuk –hainbeste kexu eta gero nork esango zuen–, eta irail-leko aldapa eternala izan denaren irudipenaz beste batzuk; pertsonak bezainbeste egokitzapen prozesu eta errealitate baitaude, errealitate batzuen baldintzetara egokitzea arnasestua eragiteraino itogarria izanik.

Dela desenpleguagatik, kontratu finko etenak epealdi baterako langabezia utzi izanagatik edo pribilegio bilakatzetik gertu dagoen opor eskubidea izateagatik, opor egunez gozatzeko aukera izan duen askok ondoezarekin ordaindu du udako hutsartea ikasketetara, lan-bulegoko ilarara edo lanera bueltatzerakoan. Opor osteko sindromea omen; gaitz kliniko gisa sailkatua ez badago ere, albo-kalte fisiko eta psikikoak eragiten dituena. Irailarenganako herra ezin zitekeen izan berezkoa hainbeste pertsonarengan.

Duela gutxi sailkatutako sindromea ei da, denboran atzera identifikatu gabea, eta horrek pentsarazten dio bati zerikusia izan dezakeela egungo errealitatearekin eta beronen bizi-baldintzekin, hots, neoliberalismoarekin. Gure bizimoduak bizigarri ez direla ohartaraztera datozen gaitz edo ondoeza guztiekin gertatu ohi den bezala, baina, identifikatu zen momentutik indibidualizat jo zen sindromea. Hala zioen ARGIAren 2.656. zenbakian hiperaktibitateaz psikologo batek: “Neoliberalismoaren ezaugarri bat da. Berak sortzen dituen arazoak arazo indibidual bihurtu nahi ditu garuna hondatuta dugula esanez”. Kasu honetan pentsa daiteke garuna hondatua dugula esatea ez dela bideragarri ikusi, hala egiteak bizirauteko ezinbesteko duen lan indarraren galera onartezina suposatuko bailioke makinari.

Estresa eragiten duen egokitzapen arazoa besterik ez dela, errutinara egindakoan joan ohi dela, hala diote sindromeaz diharduten hamaika artikuluek. Baina jakin badakigu muturreko kapitalismoa zein punturaino ari den bizitza bizigaitz bilakatzen, nola den geroz eta zailagoa errutina horietara moldatzea. Panorama beltza argitzera dator Marina Garcés mesanotxean daukadan *Ciutat Princesa* liburuko lerro artetik: “Bizitza eta lanaren arteko tartea geroz eta handiagoa da. Arrakala irekita dago. Izan daiteke infinituki, eguzkitik eguzkira lan egin badugu ere, behin eta berriz egin beharreko bidea. Edo izan daiteke bizitza material eta iraupen duina bermatuko duten beste erantzun batzuk aurkitzeak eskatzen digun distantzia”. Hobe genuke, beraz, aparteko orduak lanean ordeztu erantzun horien bilaketan ematea: asanblada, espazio autogestionatu, kontsumo talde, herri baratz, langile sare, maizter sindikatu... Nondik hasi, bada aukeratzeko. Astelehene-kin gertatu bezala, gorroto duguna ez baita asteke egun jakina, ezta kasu honetan urteko hilabete hori; gorroto duguna, nago, kapitalismoa da. ●